

EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

	EUSKO LEGEBILTZARRA PARLAMENTO VASCO ERREGISTRO OROKORRA REGISTRO GENERAL
2021 AZA. NOV. 26	
SARRERA/ ENTRADA	8396 IRTEERA/ SALIDA

Dokumentu mota / Tipo de documento: PROPOSICIÓN NO DE LEY / LEGEZ
BESTEKO PROPOSAMENA

Nori zuzendua / Dirigido a: GIZA ESKUBIDE, BERDINTASUN ETA
JUSTIZIA BATZORDEA

Proposatzailea / Proponente: IPIÑAZAR, MAITANE (EA-NV)
ETXEARRIETA, OIHANA (EH BILDU)
ANDUEZA, ENEKO (ES-SV)
MARTINEZ, IÑIGO (EP-IU)

Data / Fecha: 2021/11/26


Ekimenaren izenburua / Título de la iniciativa: Palestinako gizarte zibileko erakundeen
defentsan. // En defensa de las
organizaciones de la sociedad civil en
Palestina.

2021. urtearen hasieratik, Palestinako gizarte zibileko erakundeek areagotuta ikusi dituzte Israelgo estatuaren jazarpen-, desprestigio- eta kriminalizazio-ekintzak.

Urriaren 19an, Israelgo Defentsa Ministerioak agindu bat eman zuen, giza eskubideen aldeko sei GKE palestinar "erakunde terrorista" izendatzeko. Hori aurrekaririk gabeko eraso da, ebidentziarik eta legezko oinarririk gabea, Palestinan Giza Eskubideak betetzearen alde lan egiten duen nazioarteko komunitate osoaren aurka.

Desde inicios de este año 2021 las organizaciones de la sociedad civil palestina han visto intensificadas las acciones de acoso, desprestigio y criminalización por parte del estado de Israel.

El pasado 19 de octubre, el Ministerio de Defensa de Israel emitió una orden en la cual se designa a seis ONG palestinias de derechos humanos como "organizaciones terroristas". Este hecho supone un ataque sin precedentes, sin evidencias ni fundamento legal, contra toda la comunidad internacional que trabaja por el cumplimiento de los Derechos Humanos en Palestina.





Batzorde honetan lehen eskutik ezagutzen ditugu palestinarrek jasaten dituzten giza eskubideen urraketa sistematikoak, eta haien erakundeen jazarpena eta kriminalizazioa isilarazteko eta gizarte zibil antolatua lanarekin amaitzeko beste ahalegin bat da, giza eskubideen defentsatik Israelen okupazioa eta apartheidaren errealitate salatzeko baitituzte.

Gainera, nazioarteko erakunde ezagunek, Amnistia Internazionala edo Human Rights Watch, Nazio Batuen errelatore bereziek eta Israelgo zenbait erakundek, besteak beste, kezka agertu dute urriaren 19an emandako aginduagatik.

Horregatik guztiagatik, behean sinatzen duten talde-parlamentarioek **LEGEZ BESTEKO PROPOSAMEN** hau aurkeztu dute Giza Eskubideen, Berdintasunaren eta Justiziaren Batzordean eztabaidatzeko:

Eusko Legebiltzarrak:

1. **AITORTZEN DU** Palestinako gizarte zibileko erakundeek giza eskubideen alde egiten duten lana, bai eta haiekin lankidetzara eta ekintza humanitarioko proiektuak sustatzen dituzten euskal GGKEen laguntza ere.

2. Eusko Jaurlaritzaren eta Garapenerako Euskal Agentziaren lankidetzarako politika publikoak **DEFENDATZEN DITU**, GGKEek jasotako funtsen fiskalizazioa eta horiek egikaritzea ziurtatzen duten politikak, Euskadin elkartasun-mugimendua sendotzea eta palestinarren bizitzaren hobetzea ahalbidetu dutenak.

En esta Comisión conocemos de primera mano las sistemáticas violaciones de derechos humanos que sufre la población palestina y, la persecución y criminalización de sus organizaciones es un nuevo intento de silenciar y acabar con el trabajo de la sociedad civil organizada que, desde la defensa de los derechos humanos, también denuncian la ocupación y el apartheid israelí.


Además, organizaciones reconocidas internacionalmente como Amnistía Internacional o Human Rights Watch, Relatores Especiales de Naciones Unidas y algunas organizaciones israelíes, entre otras, han mostrado su preocupación por la orden emitida el pasado 19 de octubre.


Por todo ello, los Grupos Parlamentarios abajo firmantes presentan la siguiente **PROPOSICIÓN NO DE LEY** para su debate en la Comisión de Derechos Humanos, Igualdad y Justicia:

El Parlamento Vasco:

1. **RECONOCE** el trabajo que realizan las organizaciones de la sociedad civil palestina en defensa de los derechos humanos, así como el acompañamiento de las ONGDs vascas que impulsan proyectos de cooperación y acción humanitaria con ellas.

2. **DEFIENDE** las políticas públicas de cooperación al desarrollo del Gobierno Vasco y la Agencia Vasca de Cooperación, unas políticas que aseguran la fiscalización de los fondos recibidos por las ONGDs y la ejecución de los mismos, y que ha permitido consolidar un movimiento de solidaridad en Euskadi y mejorar la vida de la población palestina.





3. Eusko Jaurlaritzari eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari ESKATZEN DIE jarrai dezatela lanean, bai Euskadiko GGKEekin, bai Palestinako GKEekin, garapenerako nazioarteko lankidetzako politika publikoak defendatzeko eta erakunde palestinarren edozein kriminalizazio mota baztertzeko.

4. BERRESTEN DU gure konpromisoa eta babes eraginkorra, Israelek sistematikoki urratu dituen palestinarren eskubideak defendatzeko, Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa argi eta garbi urratuz, Eusko Jaurlaritzaren eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren balio, plan estrategiko eta lan-lehentasunen ildotik.

5. Palestinako lurralde okupatuko euskal erakundeetako langileentzako segurtasun-bermeak ESKATZEN DITU, lankidetzako eta ekintza humanitarioko lana egin dezaten.

6. Europar Batasuneko atzerri- eta segurtasun-politika erkideko goi-ordezkararen eta Europako Batzordeko presidenteorde Josep Borrell jaunaren bidez Palestinako lurralde okupatuan lankidetzaren eta ekintza humanitarioaren sektorea kriminalizatzearen aurkako erantzun argia eta publikoa ematea AHOLKATZEN DIE Espainiako Estatuari eta Europar Batasunari.

3. INSTA al Gobierno Vasco y a la Agencia Vasca de Cooperación al Desarrollo a que continúen trabajando, tanto con las ONGDs vascas como las palestinas, en aras a defender las políticas públicas de cooperación internacional al desarrollo y rechazar cualquier tipo de criminalización de las organizaciones palestinas.

4. REAFIRMA nuestro compromiso y apoyo efectivo a la defensa de los derechos de la población palestina, sistemáticamente violados por Israel en claro incumplimiento del Derecho Internacional Humanitario, en línea con los valores, planes estratégicos y prioridades de trabajo del Gobierno Vasco y la Agencia Vasca de Cooperación al Desarrollo.

5. EXIGE garantías de seguridad para el personal de entidades vascas en el Territorio Ocupado Palestino para el ejercicio de su trabajo de cooperación y acción humanitaria.

6. EXHORTA al Estado español y la Unión Europea una respuesta clara y pública contra la criminalización del sector de la cooperación y de la acción humanitaria en el Territorio Ocupado Palestino a través del Alto Representante de la Unión Europea para Asuntos Exteriores y Política de Seguridad y Vicepresidente de la Comisión Europea, Sr. Josep Borrell.

EA-NV

EH BILDU

ES-SV

EP-IU

